

# 1. METODOLOGIA

## 1.1. Oinarri metodologikoak

Prozesua metodologikoki diseinatzeko IAP (Investigación Acción Participativa) izenez ezagutzen dugun metodologiaren oinarriak hartu ditugu kontuan. Xedea da talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabaltzea eta prozesu horien bidez, posizionamenduak, egitasmoak eta estrategiak eraikitzea. Horrez gain, harreman-aldaketa bat dakar berekin.

IAP metodologiak prozesuan parte hartzen dutenei gizarte-sareak berreraikitzeo aukera ematen die, gizarte-sareak eraldatzeko aukera sortzea, alegia. IAP metodologiak gizarte-zientzietan tradizionalki erabili diren metodo eta teknikak erabiltzen ditu, baina berezitasun bat du: dinamizazioarekin eta parte-hartzearekin lotutako teknika bereziak erabiltzen ditu.

Ondorioz, lantaldeak eta beraiek egindako lana izan dira prozesuaren ardatz nagusia. Lantalde bakoitzak, hau da, bertan parte hartu duten pertsonen, 2 eta 10 ordu bitartean eskaini dizkiote prozesuari: lantalde batekin 2 orduko bost bilera egin dira, 2 orduko bi bilera beste batekin eta 2 ordu eta erdiko beste bilera bana beste hiru taldeekin.

Jarraian, prozesuan kontuan hartutako oinarriak edo printzipioak jaso ditugu:

- **Parte-hartzea:** parte-hartzea ez dugu informazioa eman eta iritzia eskatzera mugatu; nahiz eta ezaugarri horietako web galdetegi bat ere egin dugun. Parte-hartzea prozesuaren dinamika osatu duten gainerakoekin osatu da. Benetako parte-hartzea gertatzen da errealitatea ezagutuz, lkarrekin landuz, aztertuz eta denon artean zerbait sortuz. Errealitatea aldatzeko baldintza subjektiboak eta objektiboak sortu behar dira; horretarako bidea lan-prozesua bera izan da.

Prozesu honen helburua emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruz hausnartzea eta eztabaidatzea izan da. Hau da, eraikuntza kolektiboaren bitartez emakumeen beharrak, zailtasunak eta nahiak definitzea, betiere parte hartu duten pertsonen prozesua bere eginez.

Prozesu honetan sortutako parte-hartzeak ere badu etorkizunera begirako eragin biderkatzailea. Izan ere, diseinua dinamika parte-hartzaile batean oinarritzen den heinean, Planaren garapena eraginkorra izateko aukera handiagoa izango da, baita eragile guztien eta Udalaren kolaborazioa lortzekoa ere.

- **Malgutasuna:** oinarria pertsonekin lan egitea izan denez, aurreikusitako lanak eta epeak moldagarriak izan dira. Prozesua abiatu aurretik zein prozesuak irauten duen bitartean, prozesuaren arduradunek eta parte-hartzaileek beharrezkotzat jo dituzten aldaketak proposatu dituzte, eta egokitzat jo diren neurrian, prozesuetan egokitzapenak egin dira.

- **Hezkuntza-prozesua:** prozesu parte-hartzailea eraldaketa-prozesua izan da, hau da, eraldaketa-prozesu guztiak bezalaxe hezkuntza-prozesua izan da. Emaitzez gain, prozesuak berak protagonismo berezia izan du, bertan parte hartu dugun pertsona guztiok prozesutik ikasi egin dugu (norbanakoek, taldeek eta erakundeek), elkar elikatuaz.
- **Subjektibitatea:** prozesuen ardatza pertsonak izan dira, eta, horregatik, pertsona arteko harremanek ere pisu nabarmena izan dute prozesuaren urrats guztietan. Egitasmoetan parte hartu dugun kideok gure artean ezagutzeko denbora eman dugu, giroa atsegina eta horrelakoak lortzeko lan egin dugu. Eraldaketa-prozesua arrakastatsua izan dadin, jarrera aldaketa beharrezkoa dela uste dugu eta pertsona bakoitzaren alderdi “pertsonala” lantzea, eta horrek subjektibitatea lantzea suposatzen du.
- **Hizkuntza kudeaketa:** euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira eta euskara da berezko hizkuntza. Irungo Udala EAeko erakunde publikoa den neurrian eta euskara sustatzeko politika indarrean duenez, prozesuan koherentziaz jokatu dugu. Kontuan izanik prozesuan parte hartu dutenen gehiengoa erdalduna izan dela, prozesuan euskaraz parte hartu nahi zuten pertsonak ere hala egin ahal izateko beharrezko baldintzak sortu dira, sortutako dokumentazioa ele bietan egotea ziurtatuaz eta bakoitzak bileretan nahiago zuen hizkuntzan parte hartu ahal izateko bitartekoak jarritz, jende guztiak bileraren edukiak ulertzeko.
- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna:** proiektuak genero ikuspegia bermatu du prozesuaren egiturari dagokionez, lantaldeetan parte hartu duten emakume eta gizonen kopuruak, hizkuntzaren trataera, etab. kontuan izan dira. Gainera, edukiei dagokienez, hau generoari buruzko proiektua izanik, emakumeen interes, behar, ikuspegi, zailtasun, proposamen zehatzetan eta bereiztuetan arreta berezia jarri da.

## 1.2. Lan-prozesua

Irungo III. Berdintasun Plana diseinatzeko prozesuak herritarren, hiriko eragileen eta udaleko pertsonal tekniko zein politikoaren parte-hartzea erraztu du. Prozesuak 5 fase izan ditu eta 12 hilabetetako iraupena izan du.




Planaren diseinurako oinarri gisa hartu dira diagnostikotik ateratako ondorioak eta etorkizunerako proposamenak garatu dira honako lantaldeen bitartez.

LAN TALDEAK	BILERA KOPURUA	PARTE-HARTZAILEAK	PARTE-HARTZAILE KOP.		
			Guztira	Emakumeak	Gizonak
Berdintasunerako Batzordea	5	Berdintasunerako Batzordeko parte-hartzaileak	<b>29</b>	26	3
Udaleko Pertsonal Teknikoa	2	Udaleko Pertsonal Teknikoa	<b>10</b>	6	4
Gizarte eragileak: hezkuntza	1	Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako ordezkariak	<b>10</b>	7	3
Gizarte eragileak: osasuna	1	Irungo anbulategi, hospital eta osasun komunitarioko ordezkariak	<b>9</b>	7	2
Gizarte eragileak: merkataritza eta ostalaritza.	1	Mendibil zentroko Gerentzia, Gipuzkoako hostalarien elkarte, tokiko merkataritza, Super Amara	<b>4</b>	4	0

Lantalde bakoitzean Berditnasun Planaren oinarriak zehaztu dira eta, diagnostikoko emaitzak kontuan harturik, helburu eta proposamenak definitu dira. Beraz, diagnostikoa planaren diseinurako ezinbesteko tresna izan da. Talde sektorialen kasuan, lehenengo hurbilpen bat egin da eremu bakoitzean berdintasunaren egoera zein den irudikatzeko, batez ere beharrak eta planerako behar eta ekintza zehatzak identifikatu dira, baina horiek Udalaren kompetentzia zuzenak ez zirenez, diagnostikoan ez zegoen horien inguruko informazio zehatzik.

Hau izan da **lan-prozesuan** zehar egindako bileren ordena kronologikoa:





Prozesuan zehar garrantzi handia eman zaio komunikazio lanari, hainbat kanalaren bidez, herritarren parte-hartzea web galdetegiaren bidez lortzeko eta Irunen bizi diren pertsona guztiek prozesu horren berri izan zezaten. Hona hemen egin diren komunikazio ekintzetako batzuk:

- Prentsaurrekoa prozesuaren hasieran, tokiko komunikabide guztiak gonbidatuta
- Eragile sozialei gutun eta telefono dei pertsonalizatuak
- Irungo komunikabideetara bidalitako prentsa-oharrak
- Berdintasun Kontseiluan ordezkariak duten elkarte guztiek prozesuaren inguruko eguneratutako informazioa jaso dute etengabe; une oro prozesua zertan izan den bazekitela ziurtatuz.

### 1.3. Parte-hartzea

Prozesuak bi eratako parte-hartzea izan du: lehena, zuzenekoa izan da, lantalde eta bilera ezberdinetan parte-hartuz. Parte hartzeko beste modua, Udaleko webgunearen bidezkoa izan da, webgunean Berdintasun Planaren diseinuan kontuan hartu beharreko ekarpen eta gaiak biltzeko asmoz, egokitutako tokiaren bidez. **Guztira, 104 pertsonak parte hartu dute: 77 emakumek eta 27 gizonek.**

104 parte-hartzaile  
77 emakumezko  
27 gizonezko

62 parte-hartzaile  
presentzialak  
50 emakumezko  
12 gizonezko

42 participantes  
Web bidez  
27 emakumezko  
15 gizonezko

Prozesuan bilera eta tailerren bidez, era presentzian parte hartu dutenen artean, norbanako gisa edo/eta hiriko elkarte edo eragileen ordezkari modura parte hartu dutenak izan dira. Azpiko taulan prozesuan parte hartu duten **elkarte edo eragileak** jaso ditugu:

Irungo Gizarte Eragileak			
Arrats Elkartea	Adiskidetuak Elkartea	Gaurko Andreak Elkartea	I-Romi Elkartea
“Lilith” Euskadiko Emakumen Gazteak	Bilgune Feminista	Argoiak	Uxo Elkartea
Irungo Hiritarren Foroa	Oiasso 2000	Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa	Bidasoa Txingudi Berritzegunea
Mendibil Merkataritza Zentroa	Super Amara	Gipuzkoako Ostalaritzako Enpresaburuen Elkartea	Bidasoa Ospitalea
Unidad Docente de Medicina Familiar y Comunitaria	Dunboa Osasun Zentroa	Irungo Osasun Zentroa (erdialdekoa)	Irungo La Salle Ikastetxea
Toki-Alai ikastetxea	BIDASOA IRUN LHI	San Vicente de Paul Ikastetxea	HIRUBIDE BHI
Txingudi BHI	Dunboa HI	IES PIO BAROJA BHI	

Lan-egitura garrantzitsuetako bat Irungo berdintasun kontseilua izan da. Kontseilua Irungo eragile sozial ezberdinek zein Irungo Udalean ordezkaritza politikoa duten taldeetako ordezkariek osatzen dute.

Lan-egitura hau Irungo Emakume eta Gizonen II. Berdintasun Planaren baitan jarri zen martxan eta lanerako bere dinamika propioa du. Urtean, batezbeste, 3 bilera egiten ditu. Kontseilu honen lanaren osagarri modura elkarte berdinek osatzen duten beste lantalde bat dago, funtzionamendu horren instituzionala ez duena eta urtean 8 alditan biltzen zena 2008-2011 aldian - 2011tik egindako bilera kopurua jaitsi da- eta egun, urtean 2 edo 3 aldiz biltzen dena.

Honakoak dira Berdintasun Kontseilua osatzen duten elkarte zein formazio politikoak:

PSE	ARGOIAK	Gaurko Andreak Elkartea.
EAJ-PNV	UXOA Elkartea	Adiskidetuak Elkartea
BILDU	Irungo Hiritar Foroa	Arrats Elkartea
PP	OIASSO 2000	Bilgune Feminista
EB-BERDEAK	Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa	"Lilith" Euskadiko Emakumen Gazteak
	I-Romi Elkartea	

Webgunearen bidezko partehartzeari dagokionez, 42 pertsonak parte hartu dute galdetegiari erantzunez. 27 emakumek eta 15 gizonek, alegia. Hau da, parte-hartzaileen %65 emakumezkoak dira.



Hala ere, alde nabarmena antzeman daiteke adina kontuan izanez gero emakumezko eta gizonezkoen arteko banaketan. 25 urtetik beherakoen artean, emakumezkoak gailendu dira (7 emakumezkoak eta 2 gizonezkoak hartu dute parte); erantzuleen artean talderik handiena 26 eta 45 urte artekoek osatu dute eta emakumezkoak gailendu dira baita ere, (14 emakumezkoak eta 6 gizonezkoak hartu dute parte) eta azkenik 46 eta 65 urteren artekoetan emakumezko eta gizonezkoen kopurua nahiko antzekoa izan da. (7 gizonezkoak eta 6 emakumezkoak).

### Galdetegian parte hartu dutenak

